


2024-2027 LANDA GARAPEN PROGRAMA:

Eskualdeko Landa Garapen Programa, plangintza estrategikorako eta kudeaketa iraunkorreko tresna bat da, Euskadiko Landa Garapen legean (7/2022) jatorria duena. Urkomek, Eskualdeko Landa Garapen Programa berria lantzeko prozesuan jarraitzen du eskualdeko eragileekin elkarlanean. 2025eko apirilera amaiturik izango dugu.



AZKOITIKO BERDURA PLAZA:



Gipuzkoako Azoken Sarearen sorreran egindako herri ezberdinetako lanketetan, Azkoitia Berdura plaza indartu eta aurrera eramateko lan talde bat eratu zen. Berau udaleko ordezkariak, merkatariek elkarteko ordezkariak, azokako ekoizleen eta postu itxien ordezkariak eta Urkomeko ordezkariak osatzen dute. 2023 urtean, udalak next funtsetara proiektu bat aurkeztu zuen, tartean Berdura plazaren eraberritzea. 2024 urte amaieran amaitu ziren lanak; besteak beste teilatua, irisgarritasuna, ateak eta argiteria berritu. 2025 urtean, bigarren fase batean eta udaleko aurrekontuetatik, postuak berrituko dira.

TREBATU AURKEZPENA

Zestoatik Mahaira! II. Agroekologia Zikloaren inguruan, Zestoako udalarekin elkarlanean Trebatu proiektuaren aurkezpena egin genuen urtarrilak 22an.

Bertan Trebatuko koordinatzailea Telmo Gartzia-k eta Urkomeko kudeatzaile Yurre Peñagarikano-k parte hartu genuen.




PLASTIKO BILKETA

Urkomek, 2025erako SILO-BOLA PLASTIKOen bilketa zerbitzuko egutegia osatu du.

Bilketa hileko 2.astartetan izango da. Gogoratu plastikoak bezperan atera behar direla jasotze puntura arratsaldeko 5etatik aurrera. Plastiko hau birziklatzera eramaten da.

HILABETEA	EGUNA
URTARRILA	14
OTSAILA	11
MARTXOA	11
APIRILA	8
MAIATZA	13
EKAINA	10
UZTAILA	8
ABUZTUA	12
IRAILA	9
URRIA	14
AZAROA	11
ABENDUA	9

ENERGIA AUDITORIARIK



Urola Erdiko energia eta klima mahatik, 2024 urtean eskualdeko 5 esplotaziotan energia auditoriak egin dira. Behar izan diren kasuetan aldaketak (kontratueta) edo hobekuntzak (instalakuntzetan) aholkatu dira. Emaiza onak egon dira eta ekoizleak gustura gelditu dira emaitzarekin.

VIII. LANDAOLA SARIAK

Martxoak 14an, Zumarragako Azokan Landaola sarien zortzigarren edizioa ospatuko dugu. Beste edizioetan bezala lau sari banatuko dira: erakunde pribatua, erakunde publikoa, ibilbidea eta emakumeak landa eremuan.

Urkomeko hautagaiak hauek dira:

- Erakunde pribatua: Aiora Urbietta; Amalda biobotanika.
- Erakunde publikoa: Azkoitiko udala; Berdura plazaren eraberritzea.

LANDAOLA SARIAK

GONBIDAPENA

LANDAOLAK atsegin handiz gonbidatu nahi zaitu
LANDAOLA SARIEN zortzigarren edizioa

VIII. LANDAOLA SARIAK

Eguna: Martxoak 14
Ordua: 11etan
Lekua: Zumarragako Azoka
Gonbidatutako aplikazioak: Zela Arari (ur gazteko aplikazioak)

Sari banaketaren ondoren, bertako produktuekin egindako zizka-mizkak izango ditugu.

Mesedez bazetatu etorriko zarela landaola@landaola.eus e-mailian



[Urkome Urola Kostako Lge](#)



[urkome](#)



urkome@urkome.eus



[@urolakosta](#)



[@urkome_lge](#)



www.urkome.eus



943816500

Plaza Nagusia, 11-1.solairua, 5.bulegoa
20730, Azpeitia